



INFORMAZIO OHARRA: ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUAREN ARGIBIDEAK

Arau orokor hauek COVID-19, kasu positiboen Intzidentzia-Tasa Metatua azken 14 egunetan, 100.000 biztanleko 500 baino txikiagoa duten udalerriei aplikatuko zaizkie.

Ondorengo Dekretuen arabera:

- Abenduaren 10eko lehendakariaren 44/2020 DEKRETUAREN arabera, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikokoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.
- 1/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, lehendakariarena, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikokoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.
- 4/2021 DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, lehendakariarena, zeinaren bidez hirugarren aldiz aldatzen baita honako dekretu hau: 44/2020 Dekretua, abenduaren 10ekoa, lehendakariarena, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikokoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

“Bakarka bakarrik egin ahal izango da kirola, taldeko edozein kirol-jarduera eten egiten da, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta egin daitezke lehiaketa profetionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak”.

Hau da txapelketa Profesionala:

“Futboleko Santander eta Smartbank Ligak eta saskibaloiko Endesa Liga (ACB). Baita Liga hauetan parte hartzen duten taldeen nazioarteko lehiaketak ere”.

Hau da Txapelketa erdi-profesionala:

“Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategorian absolutuan. Kategorian absolutua baino lehenagokoa, estatuko edo nazioarteko lehiaketak ere sartuko lirateke. Master edo beterranoen kategorian, dagokion nazioarteko federazioaren egutegian argitaratutako nazioarteko lehiaketak bakarrik hartuko dira kontuan..

Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutuan”.

ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUA ARGITZEA:

- KIROLARI FEDERATU **GUZTIAK EZ DIRA** ERDIPROFESIONALAK
- Dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko federazioaren **egutegian argitaratuta dauden txapelketak dira.**
 - EZ DIRA ERDI-PROFESIONALTZAT HARTZEN: Dagozkien Euskal Federazioaren egutegian lehiaketa argitaratuta ez dutenak, kirol autoktonoen goreneko txapelketak salbuesten dira.
- **ERDI-PROFESIONALAK dira:**
 - AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA profesionaletan edo erdi-profesionaletan KATEGORIA ABSOLUTUAN parte hartzen duten beheagoko kategorietako kirolariak.
 - ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA erdi-profesionaletan KATEGORIA ABSOLUTUA BAINO BEHERAGOKO kirolariak.
 - Erdiprofesional gisa katalogatutako txapelketetan lehiatuko direla modu frogagarrian egiaztatu duten kirolari federatuak. **Ezin dira** ERDIPROFESIONALTZAT hartu kirolari federatu guztiak.

- KATEGORIA ERDI-PROFESIONALAREN ZIURTAGIRIAK. **Euskal federazioek** bakarrik eman ahal izango dituzte kirolari horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.
 - Aurreko puntuetan zehaztutako irizpideak betetzen ez dituzten kirolariei ziurtagiriak ematen dizkien federazio orok EZ DU BETEKO indarrean dagoen araudia.
 - Federazio horiek ematen ez dituzten ziurtagiri guztiak EZ DIRA BALIOZKOAK IZANGO; beraz, ziurtagiri horiek ematen dituen erakundeak edo pertsonak EZ DU BETEKO indarrean dagoen araudia.

Aipatutako urtarrilaren 22 4/2021 Dekretua indarrean dagoen bitartean aplikatuko dira neurri horiek guztiak.



Vitoria-Gasteiz, 2021ko urtarrilaren 28a.